

Egun frantsesez idazten duten euskal herritar idazleen panorama

(The panorama of Basque writers that write in French)

Casenave, Jon

Univ. Michel de Montaigne-Bordeaux 3

Dépt. des Etudes Ibériques

F33607 Pessac Cédex

Egun frantsesez idazten duten euskal herritar idazleen panoramaren aipatzeko hitz gako bat erabil daiteke: ainitztasuna. Lehenik idazleek bizi duten egoeraren aldetik: zenbait Euskal Herritik Parisera joanak eta han argitaratzen ari (M. Darrieussecq), besteak hemen bizi eta hemen argitaratuak (Ph. Oyhamburu), beste zenbait oraindik kanpotik edo urrunetik etorriak (E. Manet). Batzu Euskal gaietarik kanpo ari direnak (F. Marmande), beste batzuek gai horietarik idazlan nagusiak sortzen (Fl. Delay). Bakar zenbait bi hizkuntzetan ari (Itxaro Borda), gehienek erdaraz idazten (Cl. Dendaletche). Hots, gero eta gehiago, euskal herritar izate hori, hautu baten ondorioa dela erran daiteke, sorlekuarena baino. Bigarrenik, liburuen ainitztasuna aipa daiteke mota edo sailaren aldetik: gida liburuetarik literaturarainoko eremu zabalean denetarik aurkitzen baita. Halarik ere, bi mota berxten ahal dira biltzen duten arrakastarengatik: oroitzapen liburuak eta argazki bildumak beren idazki elebidunekin. Oro har, liburu horiek irakurle goero eta zabala goa erakartzen dute.

Giltza-Hitzak: Ainitztasuna. Elebitasuna. Euskal gaiak. Irakurle goa. Literatura erkatua. Testu arte kotasuna.

A la hora de hablar de los escritores vascos que escriben en francés podemos emplear una palabra clave: pluralidad. En primer lugar, respecto a la situación en que viven: algunos se desplazaron de Euskal Herria a París y es allí donde publican (M. Darrieussecq), otros viven y publican aquí (Ph. Oyhamburu), y también los hay venidos de fuera (E. Manet). Algunos no cultivan temas vascos (F. Marmande), otros escriben obras importantes sobre estos temas (Fl. Delay). Unos pocos se producen en ambas lenguas (Itxaro Borda), la mayoría escribe en francés (Cl. Dendaletche). Es decir, cada vez más, se puede afirmar que ser vasco es cuestión de elección, más que de lugar de nacimiento. En segundo lugar, se puede mencionar la pluralidad en cuanto al tipo de libro: desde guías hasta hasta el amplio campo de la literatura, encontramos de todo. De todas maneras, pueden destacarse dos tipos en razón del éxito que cosechan: los libros de memorias y las colecciones de fotos con texto bilingüe. En general, son estos libros los que atraen un público cada vez más amplio.

Palabras Clave: Pluralidad. Bilingüismo. Temas vascos. Lectores. Literatura comparada. Intertextualidad.

A l'heure de parler des écrivains basques qui écrivent en français, nous pouvons employer un mot clé: pluralité. Premièrement, en ce qui concerne la situation dans laquelle ils vivent: quelques-uns sont déplacés d'Euskal Herria à Paris et c'est là qu'ils sont publiés (M. Darrieussecq), d'autres vivent et sont publiés ici (Ph. Oyhamburu), et il y a également ceux qui viennent de l'extérieur (E. Manet). Quelques-uns ne s'intéressent pas par les thèmes basques (F. Marmande), d'autres écrivent des oeuvres importantes sur ces thèmes (Fl. Delay). Un petit nombre se travaille dans les deux langues (Itxaro Borda), la majorité écrit en français (Cl. Dendaletche). C'est-à-dire que de plus en plus, on peut affirmer qu'être basque est une question de choix, plus que d'un lieu de naissance. Deuxièmement, on peut mentionner la pluralité concernant le type de livre: depuis des guides jusqu'au vaste domaine de la littérature, nous trouvons de tout. De toute façon, on peut souligner deux types, en raison du succès qu'ils récoltent: les livres de mémoires et les collections de photos accompagnées de texte bilingue. En général, ce sont ces livres qui attirent un public toujours plus nombreux.

Mots Clés: Pluralité. Bilinguisme. Thèmes basques. Lecteurs. Littérature comparée. Intertextualité.

Lehenik bi pentsaketa goiz huntako mintzaldiek inguratzen duten eremuari buruz.

Gure lau hitzaldien bitartez, euskara eta erdara, hots egunero bi eskualdetan erabiltzen ditugun hiru hizkuntzek elgar hurbiltzen dute gai beraren inguruan, Euskal Herria eta Euskaldunak literatura mailan, bainan sartze desberdinen bitartez. Maiz, konkurrentzian, kontrako eta batzuetan etsai ditugun hizkuntza horiek bateratuak dira gaurko egitarauan.

Ideia hortarik abiatu naiz ikusteko zer balio duen hizkuntzen giltza edo sartze horrek egungo iparraldeko literaturaren egoera aipatzeko.

1. EUSKAL HERRITAR IDAZLEAK

“Egun frantsesez idazten duten Euskal herritar idazleen panorama” izanen da landuko dudana gaia. Liburu zerrenda eta idazle sailkapenetan sartu baino lehen, gelditu gaiten gogoeta, une batez “euskal herritar” erran molde horren gainean. Euskaraz “erran nahi garbia” badu; Iparraldean segunik “nungotarra” zira eta “nungoa” zira galdeak berexen ditugu: lehenaren bitartez gure sort-herria galdegina zaigu-, bestearekin aldiz, bizi lekutat hautatu dugun herria edo hiria. Lehena, jai garen herria, sortzean emana izan zaiguna; bigarrena aldiz, hautuzko tokia da. Beraz, hemengo antolatzaileek eman diguten gaia lantzekotan behar genuke “Euskal herrian sortua den jendea” bakarrik hartu kondutan, gure gogoeta eremuaren mugatzeko. Bainan, bistan dena definizioa uste baino konplexuagoa da. Azken urte hauetan, Euskal Herrian Europa guzian bezala ezagutu ditugun aldaketek beren lana obratu dute, demografia mailan, soziologia mailan baita ere kulturaren aldetik. Hots, ez da lehen bezain aise erraiten ahal xuxen nor sartzen den Euskal herritarretan eta nor ez den horietan sartzen, mugak aldakorak baitira eta gure begien bistan aldatzen ari dira. Nortasun kontu hortan, sortzea, hizkuntza, lurraldea, jendakia edo etorkia ez dira sekulan muga ezin gaudituak izan, eta menturaz, lehen baino guttiago egungo egunean. Muga objektiboen ondoan, axalean ageri diren ezaugarrien ondoan, hautu eta erabaki pertsonalek ere garrantzi handia badute, hots muga objektiboen ondoan, aukera subjektiboak ere kondutan hartzeak dira.

Kasu konkretuak aipa ditzagun orain, erakusteko eremuak bat bestearen baitan sartzen direla:

Eman dezagun Euskal herritari buruz frantsesez egiten den sorkuntza lauki bat dela, ikus ditzagun orain lau buruetan ditugun adibide esanguratsuenak:

Eskualde batean, Marie Darrieussecq baginuke. Basusarrin sortua, Baionan egona goi maileko ikasketetan sartu baino lehen eta Parisen idazle ospetsu bezala ezagutua, 1996-ean *Thuismes* bere lehen eleberria argitaratuz geror. Ez du Euskal Herria gai bezala sekulan hartu, bainan kazetarien aintzinean behin baino gehiagotan errepikatu du

Euskal Herrian sortua dela, ama lapurtarra duela lapurtera emaiten duena, bere sort-herria maite duela baita ere Eskualdun daukala bere burua.

Beste buru batean, Edouardo Manet: sortsez Kubatarra, handik joan-eta frantses nortasuna eskatu eta ukan duena, azken bi liburuetan *D'amour et d'exil* (1999) et *La Sagesse du singe* (2001) Euskal Herria gai nagusi edo bederen garrantzi handiko azpi gai bezala hartu duena. Harek, bere hautuzko lurraldea egina du Euskal Herria.

Hirugarren muturrean, Michel Oronos, euskalzaile ezagutua. Aurten eleberri bat argitaratu du euskaraz *Oilandoiko ermita*, bainan hori baino lehen, jakin behar da Baigoriko eta Euskal herriko iragana eta orainari buruz baduela besteak beste eleberri bat frantsesez egina, bi liburukitan, *La Noce basque* (1994) deitzen dena.

Laugarren buruan, Mayie Pelot aurkitzen dugu. Bordale ondoan sortua eta Euskal Herria lanerako etorria. Hemen laketurik, 24 urtetan euskara ikasten du eta geroztik hiru liburu argitaratu ditu euskaraz, bi zientzia fikzioa sailean, *Biharko oroitzapenak* (1985) eta *Telemarauna* (1987), baita ere entsegu bat Hinduismoari (1992) buruz.

Hara, xutik dira gure laukiaren lau zedarriak edo hobeki erraiteko, lau sartzeak, lau ateak gure egungo literaturaren eremuan gandi ibiltzeko. Artean, denetarik bagenuke, izen ospetsuak, hala nola Florence Delay baionesa-rena, frantses Akademian berrikitan sartua, idazle ezagutua eta Euskal Herria aipatu duena *Etzemendi* (1990) fama handiko eleberri batean. Francis Marmande, Baionesa hura ere, Pariseko bidea hartu duena, erakasle baita ere idazle egiteko. Bidea beste zentzuan egin dutenak baditugu, Txomin Peillen Parisen sortua den idazle xuberotarra, euskal liburu frangoren emaille. Philippe Oyamburu, hura ere Parisen sortua eta idazle bilakatu dena. Gainez gain ibilirik ere ez genuke Claude Dendaletche ahantzi behar. Biologista eta antropologo den Kanboar horrek badu hamar bat liburu eginik frantsesez, parte handi batean Euskal Herriari buruz, azkena zinez gomendatzeko delarik, *Les sorcières de Zugamurdi* deitzen dena. Segitze-ko aipa dezagun kasu berezi bat, François Aillet, Europako iparralde mutur hotz horietan bizi dena eta Haikuak euskaraz eta frantsesez lantzen dituen eskualdun berria. Eta bururatzeko azpimarra dezagun, Itxaro Borda euskal idazle ezagunaren azken lana, *Entre les loups cruels* aurten Maiatz argitaltxearen “Elebi” sailean jalgia, eta bi hizkuntzetan emana dena.

Ikusten duzuen bezala, “Euskal herritar” erran molde horri definizio zehatzik ezin emanez, uste baino urrunago joan gira. Oronen buru, ibildide pers-tonalak dira nagusi. Dakizuen bezala, ez da aski Euskal herrian sortzea, euskal herritar idazle bilakatzeko. Argi ta garbi ageri da, hautuzko nortasuna dela azkenean, “nortasun” arazo hortan kondutan hartzeko den ikuspegi subjektiboa, bai euskaraz egiten den sorkuntza mailan, baita ere frantsesez

egiten denari buruz. Orduan, ez dut sailkapen zehatzik emaiten ahalko, baizik eta norabide handienak eremu konplexu batean.

2. IKUSPEGI HISTORIKOA

Egungo ikuspegi orokorra eman baino lehen, bizpahiru ohar historiko Euskal heritarrek eskaini duten frantsesezko sorkuntza eta ekarpen literarioari buruz.

Hastapen horiek aipatzerakoan, denek gogoan dukezue Agusti Chaho-ren aurpegia. Hunek, Pariseko egonaldia buruturik XIX-garren mende erditustan, Euskal Herrira itzuli zen. Eta, Euskaldunak ezagutarazteko xedearekin liburuak argitaratzen hasi zen, frantsesez, ainitz sailetan, hala nola *Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques* (1836). Dasconaguerre-n *Les échos du pas de Roland* (1866) edo, berantago, 1893-ean hain zuzen, J. P. Harispe-k idatzi zuen *Ainhoa* “roman de mœurs basques” azpi tituluarekin) behar ditugu aipatu fite fite. Baina, sorkuntza mailan, dakizuen bezala, 1897-an Pierre Loti-ren *Ramuntcho* deitu eleberriak dio XX-garren mendeko lehen erdiko gure endarazko literaturari bidea zabalduko. Jarraitzaileek idatziko dute, nork Lotiren liburuaren berdintzeko, imitatzeko, nork eredu gaudituz beharrez, baita ere bat edo besterentzat, Loti-k eskaini zuen ereduaren kontra jaoteko, hari oldartzeko. Ondorioak, hor dira: hogoigarren mende hastapenetik bigarren munduko gerla artio, hamabost bat eleberri argitaratuko dira frantsesez Euskal herria eta Euskalduneri buruz. Idazleetan aipa ditzagun nahas mahas, Francis James, Hazpamen bizi zen frantses poeta famatua, Mayie Elisague, “Gure Herria” aldizkarian besteak beste argitaratzen zuen ipuin egilea, Laurent Fourcade eta Pierre Apesteguy eleberri egileak, eta beste izen batzu baginituzke aipatzeko, baina, denbora eskasez, Pierre Lhande-rekin nahi nuke sail hau bururatu, Euskalzain oso izan den idazle horrek baitu orotar bat berrogoitahamar bat liburu eginik eta horietan, lau eleberri edo ipuin bilduma Euskal Herriari buruz frantsesez eginak, *Mirentchu* (1914) eta *Yolanda* (1921), gero euskarara egokituko zuena.

Eta azpimarratzeko da, horietan gehienak Pariseko argitaletxeetan agertu zirela, eta zonbeitzuek edozio frango ukan zutela, arrakastaren marka duarik ez. Beraz, ikusten duzuen bezala, orainko sorkuntzak erroak baditu aspalditik eginak Euskal Herrian. Ikuspegi horrekin bururatzeko, eta gaurko panoramari lotzeko, erran dezagun laster, bigarren gerlatik landa, interes apaltze izigarri bat izan dela eta bide batez, sorkuntza tipitu zen molde harigarran. (Aipa ditzagun doi doa, garai hartan, J. Peyré Euskal herriari guziz lotua zen Biamesaren liburuak izan zirela, hala nola, *Jean le Basque* arrakasta ederra bildu zuen eleberria. Sorkuntzak aintzina segitu zuen, baina garai hartan erdi gorderik edo hobeki erraiteko molde elitista batean, Pierre eta Guy d'Arcangues aita-seeekin edo Pierre Espil idazlearekin. Horien liburuak ez zuten irakurle go handia bildu baina sua bizirik atxiki zuten nolazpait. 50-

eko eta 70-eko hamarkada horien artean, frantsesez egiten zen sorkuntza muriztuz joan da beraz, geroxago emanen ditudan arrazoin soziologiko eta kulturalen gatik menturaz, Euskal herriak ez zuen gehiago XX-garren mendeko lehen erdian ukan zuen arrakasta, hoinbestetan errana izan baitzen desgertuko zela. Bazirudien beraz, Elisée Reclus geographoak, XIX-garren mende erdian *La Revue des deux mondes* aldizkarian zabaldu zuen iritzi profetikoa egiaztatuko zela: “Les Basques, un peuple qui s'en va”. Baina, eskuaraz ari zirenen idazleeri eta eskualzaleeri esker –Lafitte bezalako batzu dituz gogoan– hemengo bizi kulturalak aintzina segitu du baita ere berriz abiatu egundainokotan eta azkartu da, 70-eko hamarkadan).

3. IPARRALDEKO BIZI KULTURALA ETA FRANTSESEZ AGERTZEN DIREN IDAZKIAK

Gain gaintetik ikusiz, pentsa daiteke Frantses Errepublikaren hizkuntza ofizialarentzat literaturaren bideak zabalik direla, hark baduela geriza guzien aterbea eta nahi bezainbat diru, gaineratzen badugu frantsesez ari zaizkigula tokiko eskola eta unibertsitatea. Baina hori ez da arras hala. Frantsesezko literaturak Ipar Euskal Herrian “probintzialismoa” deitzen den gutiespen mota jasaiten du, Parisetik edo Pariseko influentzia eremutik kanpo aurkitzen den beste edozoin eskualdeko ekoizpena bezala. Frantziako periferian izanez, hemengo idazleak argitaletxe handi eta bizi literario ofizialetarik bizi dira. Horrek daukan ondorioa garrantzi handikoa da: bigarren maila batean aurkitzen dira, gai “probintzialak” erabiltzen dituzte, hots tokiko historia edo memoria, aipatu gabe sukaldaritza edo gue Pirenoetako xarma berezien oihartzunak. Hainbestetaraino egia garratza da hori –eta ez da orainko!–, non literaturan “izen bat” egin nahi duen batek bortxaz Pariserako “igan” behar du, hango jendeak dion bezala! Erran gabe doa ere han dela literatura “serioski” eta ofizialki aipatzen duen prentsa, telebista emanaldiak aipatu gabe. Horiek guzien ondortik gogora heldu den ondorio ohargarria hau da: beraz euskara eta frantsesa parezka daitezke.

Hori, hargatik, laburbiltze faltsua litzateke. Argiki erran behar da argitaratze politika biziago bat garatzen ari dela, eta sail hortan gure eskualdeak badu literaturzaleentzat eta idazleentzat erakargarritasun berezia eta indartsua. Gisa hortan, ikusten ditugu batzu kanpotik etorriak gure artera bizitzera heldu direnak. Ez da ahantzi behar azken urte hauetan, Pariseko kultur “dikta” horien aurka eskualde frango altxatzen direla eta bereziki probintziako hiri haundiak eta ertainak, bakoitzak bere politika kulturala –literatura bame– garatzen duela; guri dagokionez, Bordele eta Oktzitanakio Tolosaren influentzia eta aldaketa nabariak aipa ginitzazke. Bordaleko argitaletxe batzuek egiten duten lana kalitatezkoa da –oroit gaitezen ere, bide nabar, Bordele imprimitua izan dela Bernat Decheparen liburuak–; kalitate handikoa ere han agertzen diren aldizkari zonbeit, hala nola “Le Fêstin”, edergintzari idekia den fama handiko agerkaria.

Beraz, hirietan aurkitzen dira kultura, argitalgintza eta literaturarentzat garatzeko ahalak. Orduan, ikus dezagun gure iparraldeko hirietan zer nolako giroa den alde hortarik. Ohargarri da lehenik, ikerketa mailako ainitz agerkari (Bulletin du Musée basque, Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne) duen hirialde batek ez duela mail bereko aldizkari literariorik ukaiten bere eremuan. “Les Nouveaux cahiers de l’Adour” aipatu behar dira, poesia sailean ari dena. Frantziako eskualde guzietan heldu diren testuak biltzen ditu, baita ere lehiaketak antolatzen noizbehinka. Baiona, Angelu eta Biarritzeko hiriek ere literatur lehiaketak antolatzen dituzte, eta ohargarri da, berrikitan esukara eta gaskoina sar arazi dituzte. Fanzine edo doi bat bazter diren literatur argitarape-netan, *L’Œil sauvage* elkarte eta *Nouvelles Plumes* bere aldizkaria aipatu behar dira, nahiz Interneten apostua egin duten gehienbat.

Literatura idatzitik doi bat urrunduz, argi da ere liburutegiek frantsesezko literaturari buruz duten estrategia baikorra. Angeluko liburutegiak, idazleak ekarritzen ditu, erakusketak antolatzen ditu dinamika bat sortuz talde entseatu bati esker. Baionan ere bide beretik doaz eta Miarritzen helduden urtean ukanen dute Mediateka berria.

Festibalak, jaialdiak, okasione baliosak dira literaturari bultzada baten emaitzeko. Aipagarrienak dudarik gabe Biarritzeko *La Cité*, latinamerikarraren zinema eta literaturaren jaialdia, baita ere Franko-iberiko eta latinamerikar antzerki festibala; biek, tokia nasaia egiten diote liburuari eta idazleak ekarritzen dituzte, besteak beste Bioy Casares, Raphaël Confiant edo Eduardo Manet. Kurioski, Sarako eta Donibanekoak aparte ez da liburu feria handirik antolatzen kostaldeko hiriburu nagusietan, Biarritzeko haur liburuaren azokaz bestalde.

Euskarazkoan bezala, bada frantses sorkuntzari dagokion sailean genero bat guziz bizirik dagoena, eta hori dudarik gabe antzerkia. Profesional gisa, laupabost talde badira: *Lézards qui bougent* Christian Fredric-en inguruan, *Les Chimères* Jean-Marie Broucaret-ren zuzendaritzapean, *Le Théâtre du Versant*, Gaël Rabas kudeaturik, baita ere, Donibane Lohitzuneko taldea, *Scaramuccia*, Jean-Marc Tto-ren inguruan. Lehenago aipatu festibal handien ondoan, beste antzerki festibal tipi eta arteko asko aurkitzen dira ere, hala nola, Hendaiako “Le Mai du Théâtre”, Donapaleuko festibala, Baigorrikoa, eta beste emanaldi frango. Antzerki taldeek sortzen duten bizi kulturala zinez azpimarratzekoa da, literatura engaiatua, testu berriak eta idazleak gazteak taularatzen baitituzte. Eta bururatzeke, aipa dezagun iparraldean dugun liburuaren erakustoki hoberena, erran nahi baita Sarako liburu feria, Garat medikuak urtero antolatzen duena. Ehun bat idazle biltzen dira han liburu saltzen eta sinatzen eta jendea, klase guzietakoa, mustuplika biltzen da herriko polykiroldegian, pazko astelehenez giro hoberenean. Bizi kulturalaren baitan egin dugun ibilaldi honen ondotik, itzul gaitzen liburuari.

4. EGUNGO EGOERA SORKUNTZARI BURUZ, IKUSPEGI OROKORRA

Egungo egoeraren ulertzeko, zonbeit sartze emanen ditugu.

– Lehena: Nun argitaratzen dira liburuak, eta nor dira argitaratzaileak?

Pierre Bourdieu frantses soziologoaren ikerketen ondotik, badakigu denek, sorkuntza mailan, liburuaren ekonomia eta diru iturriak garrantzi handiko osagaiak direla literaturaren egoeran. Lehen erraiten ginuen XX-garren mende hastapenean, egoera argia zela: euskal liburuak hemen berean iparraldean argitaratzen ziren eta salbuespen batzu kenduz geroz, eskualkiaren arazoarengatik hemen irakurtzen zirela.

Frantsesez idazten zirenak aldiz, gehienak Parisen argitaratzen ziren, Mercure de France, Plon, bezalako etxe famatuetan. Frantzia guzian saltzen ziren irakurlego nasaia baitzen “roman régionaliste” edo “eskualdeko eleberria” sailarentzat, Eskualdun idazleak bame bistan dena.

Egungo egunean, eskualde huntako euskal idazleek hegoaldean aurkitzen dituzte maizenik argitalxeak nahiz hemen berean badiren batzu onak eta baliosak bainan ahal gutirekin bizi direnak, Maiatz argitaletxearen gisan. Aldiz, frantsesez idazten dena ez da berdin saikaltzen ahal. Kultura eta liburuaren sailean beste sail guzietan bezala, zentralista da frantses politika. Beraz, gutti gora behera erran daiteke, sorkuntza bi partetan da Frantzia mailan: alde batetik, “unibersalista” sormarka rekin egiten den literatura Parisen argitaratzen da (eta hori Pariseko argitaletxeetan sortzen dituzten kriterioak dira). Bestaldekik, probintzietan egiten dena, “probinzialista” edo hedadura guttikoa dena, eta gu bigarren sail hortan sartzen gaituzte. Salbuespen eder batzu badira bistan dena, denek gogan dugu oraino joan den urteko Nobel saria, Gao Xingjian, les *Editions de l’Aube*, Probenza aldeko argitaletxe ttipi batek ezagutarazi duen idazle handia. Bainan oroit gaitzen, Bernardo Atxaga-ren liburuen itzulpenak ez direla iparraldean argitaratu bainan Parisen, *Christian Bourgeois* editorialean. Euskal Heritik kanpo argitaratzen dutenen artean, aipa ditzagun, Florence Delay *Gallimard*-ren kondu, E. Manet, *Grasset*-en etxean, Marie Darrieussecq *POL* argitaletxean.

Halarik ere, Euskal Herritarrek argitaratzen duten parte handiena, hemen berean argitaratzen da. Hemen ere aurkitzen baitira egitura tekniko batzu gero eta hobeagoak direnak: *Aubéron*, *Atlantica*, *Elkarlanean*, *Euskal erakuts tokia*, *Gatuzain*, *Epegi*, *Maiatz*, *Pimientos*, *Sud-Ouest*, *Urna*. Ikusten duzen bezala, hamar bat argitalexte baditugu inguruan gai direnak liburu baten plazaratzeko. Argitalexte profesional horien ondoan ere badira idazle batzu nor bere kondu argitaratzen ari direnak, hala nola Michel Oronos frantsesez argitaratu duen *La noche basque* eleberraren kasuan. Idazle gehienek

Euskal gaiak erabiltzen dituzte, horrek erran nahi du liburuaren ekonomiaren aldetik, salmenta bat dela produkzio horrentzat eta froga bezala erran dezagun liburu saltoki berezietaz aparte, saltoki orokor handietan ere, toki berezi bat egiten dela Euskal gaiari buruzko liburuentzat, Angeluko Carrefour saltokian adibidez. Irakurlego bat jarraikia bada beraz liburu mota horrentzat, frantsesez egina delarik.

– Bigarren galde sorta: Zer argitaratzen? Zer genero mota lantzen da? Nor dira obra horien idazleak?

Hemen argitaratzen dena, maizenik Euskal gaiari buruz egina da. Ikuspegi orokor baten emaitako, literaturatik urrun dabiltzan sailetarik abiatuko gara, hartarik gero eta gehiago hurbiltzekotan haatik.

Bi sail nagusitan banatu ditut liburu horiek:

Printzipioz, irakurlego berezitu edo hertsia go batentzat argitaratzen diren liburuak eta, bestalde, publiko zabalago batentzat eginak direnak. Printzipioz diot hastapenean, baitakizue batzuetan, irakurtzeko zaila izanikan ere liburu batek uste gabeko arrakasta biltzen ahal duela irakurleen artean eskatera bati ihardesten diolarik. Adibidez, J.B. Orpustan-ek duela hameka urte argitaratu duen *Toponymie basque* deitu liburua, zointan aipatzen dituen guziz zientifikoki Herri izenen etimologia, irakur-errea ez dena batere, bainan, jendeen artean jakinmin baten betetzera behar orduan jin dena.

– Irakurlego hertsia batentzat:

Ikerketa lanak dira batez ere: aipa ditzagun besteak beste, M. Goyhenetxe-k euskal historioari buruz Elkarlanean argitaletxean agertu duen *Histoire du Pays basque*, hiru liburukitan. Baita ere, Colette Larraburu-k eta Peio Etcheverry Aintziart-ek, *Euskal rock-aren istorioa Atlantica-n*. Izpegi, Baigorriko argitaletxea da sail hortan berezituia dena batez ere. Ainitz ikerlan, frantsesez idatziak direnak, agertzen dira aldizkari berezitueta, hala nola *Lapurdum*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Ekaina* aldizkarietan. Aipatzekoak dira ere sail hortan Pariseko L'Harmattan argitaletxeak publikatu dituen Txomin Peillen-en liburuak edo Ur Apalateguy-ren *La Naissance de l'écrivain basque* adibidez.

– Publiko zabal batentzat eginak direnak ikusiko ditugu orain gainez gain.

Ez da errex sailkapen bat egitea, guziz nasaia baita azken urte hauetako emaitza. Has gaitezen irudiak eta testuak uztartzen dituzten liburuetarik. Horietan, gero eta gehiago agertzen direnak dira gida liburuak. Frantziako argitaletxe handiek egiten dituzte eskualdeka: aipa ditzagun horietan *Gallimard*-ek egin duen *Le Guide du Pays basque* edo *La Manufacture* etxeak egin duena; hau, Manex Goyhenetxe euskal idazlearen eskutik duguna. Bainan

sail berean, horrelako lanak argitaratu dituzte ere hemengo etxeek, hala nola le *Guide du tourisme culturel* Elkarlanean argitaletxean adibidez eta ez genuke ahantzi behar, Pimientos Donibane Lohitzu-eko etxeak berrikitan argitaratu duen le *Dictionnaire de la culture basque*, hemengo idazleen laguntzarekin, nor bere sailean ari izan delarik.

Horietan ez nituzke ahantzi nahi Argazki bildumak eta hori bi arrazoinengatik: ugarituz joan baitira urtez urte, gero eta gehiago arrakastarekin, eta horietan testu originalak aurkitzen ditugu, ardurenean bi hizkuntzetan. Hemen, besteak beste Eric Chauché-ren bilduma ederrak izendatu nahi nituzke: *Ephémères*, *Côte basque*, 1994, Manex Goyhenetxe-n testuarekin eta Jean Filho-ren itzulpenarekin, baita ere *Euskadi, Terre des Basques* (1998) Philippe Oyhanburu-ren testu batekin, biak Umea argitaletxean; Robert Thurin argazkilariak agertu duen *Quatre Saisons* liburua, bi testu desberdinekin, euskarazkoa Itxaro Borda-rena delarik eta frantsesezkoa Galaad Esker-rena, baita ere aurten agertu den *Pays basque au tournant d'un siècle* Jean Dieuzaide argazkilariaren bilduma, Txomin Laxalt-en testu batekin. Horietan, sorkuntza lana badugu, bai argazkien aldetik baita ere testuen aldetik. Pentsatuko duzue, euskal testuaren itzulpena aurkitzen denaz geroz, guziz sinbolikoa dela euskararen tokia eta lekukotasun gisa ekarria dela, bainan, presesi hortan badugu ideia bat guziz interesgarria *Quatre saisons –lau urtarook* deitu liburuan. Hortan, Itxaro Borda-ren testua ez da itzulia, eta frantsezkoa ere originala da. Beste gauza bat nahi nuke aipatu sorkuntza mota lan hori buruz. Arrakastatsua da guziz sail hori eta, dakizuen bezala garrantzi handikoa, gure soa, gure begia lantzen eta aldarazten baitu, alegia deus ez; gurea eta kanpoko jendearena ere. Euskal Herriaren irudia aldatu zaigu azken urteetan eta hori, argazkilari, filma eta telebista egileeri zor diegu menturaz, idazleeri bezainbat.. ez bada gehiago, ikusiz zer indarra duen irudiak gure eguneroko bizi moldean.

Irakurlego zabal bat aurkitzen dute ere memoria lantzen duten liburuak. Oroitzapenak nasaiki argitaratzen dira eta ongi saltzen gainera, funtzio bat guziz interesgarria betetzen baitute gure iparraldeko gizartean, besteetan bezala funtsean. Hortan, zinez enblematikoa dugu Jacques Dufhilo medikuaren *Docteur un cheval vous attend*. Jean Etchepare gure euskal idazle famatuaren ondotik, –zonbeit urte berantago haatik– Alduden egon zen luzaz mediku gaskoin hori eta bere esperientziak oroitza-pen liburu eder bat eman du. Hortan, Baigorriko eskualdeak hogoitahamar urtez ezagutu dituen aldaketak kondatzen ditu. Uste gabetarik, liburu hori ainitz saldu da iparraldean. Sail hortan ere behar dugu sartu Philippe Oyhanburu-ren *Dialogue avec mon journal*, aurten agertu dena Atlantica argitaletxean.

Liburu tematikoak ere izan dira azken urte hauetan, eta horietan, doi doia biga nahi nituzke izendatu: *Le Pays basque vu par les peintres*, Séverine Berger gazteak aurten argitaratu duena Atlantica-n eta *Pablo Tillac*, Claude Dendaletche kanboko

margolariari eskaini dion ikerketa, Elkarlanean argitaletxean.

Bururatzeko, aipa dezagun *Nations basques*, Autrement argitaletxean 1993-ean André Gabastou zuzendaritzapean agertu zen saio liburua. Ikuspegi frango, batzu unibertsitario ikerketatik hurbil, besteak (Atxagarena adibidez) guziz literaturaren alorrean sartuak, badugu liburu hortan kaleidoskopo bat guziz interesgarria gaurko Euskal Herriari buruz.

Eta azken aipamen horrekin, literaturaren eremuan sartu gira ohartu gabe. Poesian, ainitz eskualdetan bezala ez da gauza handirik agertzen, hedapen guttiko agerkari batzuetan ez bada, hala nola *Les Nouveaux cahiers de L'Adour* edo *L'Œil sauvage*. Salbuespen arras interesgarria dugu haatik, *Maiatz* Baionako argitaletxeak publikatzen duen elebi saila; besteak beste aipa ditzagun hortan, Serge Arrieta-ren *Su karrak*. *Brasero phréatique* edo François Aillet-en *Kaiku haiku* eta aipa dezagun ere Ixaro Borda idazle emankorrek prestatzen duen poema bilduma elebiduna.

Antzerkia da behar bada Iparraldeko kultur ezeanean arte mota biziena. Laupabost talde profesional baditugu, ostion aipatu ditugunak (*Les Chimères*, *Lézards qui bougent*, etb.) eta talde ez profesionalak ere badira. Kreazioak ere baditugu, hemen gaindi muntatzen diren festibaletan, eta azpimarratzeko da ere zoinbeit taldek elebitasunari buruz egiten duten indarra, hala nola *Les Chimères* taldean baita ere Bordaxuri taldean.

Bainan, aspaldiko partez –orrotzen zirezte nola bigarren gerlatik landa guziz modan zen “le roman basque” sail arrakastatsua erori zela–, beraz aspaldiko partez, badirudi narrazio eta eleberria goiti doazela. Gerxago aipatuko ditugun idazle ezagunen idazlanak aparte utzirik ere, hamabost bat eleberri aurki daiteke azken urte hauetan; iparraldeko guziz aipagarri dena bistan da jende kopurua ikusiz. Narrazio labur bildumetan eta eleberrian arizana da orain arte Mari-Josée Basurco, *L'Exilée* eta *Retour d'exil* liburuekin. Michel Oronos Baigorriaren eleberriak, *La Noce basque* deituak aipatu ditugu jadanik. *Les Chemins de terre rouge* izeneko liburuan Bruno Dumas-ek Eskualdunek kurritu dituzten Hego Ameriketako bazterrak erakusten ditu. Paul Haïm idazleak bi liburu egin ditu Euskal Herriari buruz eta azkenik, *Guernica* deitua dena. Ez ditugu denak izendatzen ahal eta bi izenbururekin geldituko gira: *Les Œillets de Guernica*, Jacques Mongie Gironde eskualdekoak aurten argitaratu duen polizia eleberria eta, azkena, Jacques Dufilho mediku ohiaren *Hayra*. Ama-semeen arteko gutunen bidez kondatzen du Eskualdun baten Ameriketako egonaldi luze eta dorpea. Ikusten duzuen bezala, iparraldeko jende kopurua kontutan hartuz idazleak eta irakurleak ez dira falta Euskal gaien inguruan.

Eta sorkuntza sail horrekin bururatzeko bi obra guziz interesgarri nahi nituzke aipatu. Bi eleberri dira, arrakasta handia bildu dute biek eta, biek idazle ospetsu batzuen eskutik jalgi dira

azken ure hauetan. Lehena, *Etzemendi* deitzen da eta Florence Delay Baionesak, plazaratua du 1990-ean, lan horrekin François Mauriac saria biltzen zuelarik. Bigarrenak, *D'Amour et d'exil* du izenburua eta Edouardo Manet idazleak argitaratua du 1999-ean. Bi eleberriek Euskal Herria eta Eskualdunak dituzte apagai nagusi. Egileak guziz ospetsuak, bi liburuak Euskal gaiari buruz itzuliak eta biak guziz molde interesgarrian idatziak. Bistan dena arrazoin horiek aski genituzke orain arte izendatu ditugun obretarik berexteko. Biek, noski, Pierre Loti frantses idazleak XIX-garren mende ondarrean argitaratu zuen *Ramuntcho* eleberria ekartzen digute gogorat.

Nahiz, zonbeit pundutan *Ramuntcho*-rekin ahai-de diren –batez ere Euskal nortasunari buruz duten erakartze edo fazinazioa dut gogoan–, badute biek eredu famatuarekin desberdintasun nagusi bat. Orrotzen zirezte *Ramuntcho*-k heritik Ameriketarat joate bat kondatzen zuela, hemengo erro guziak mozturik. XX-garren mende bukaerako bi nobela horiek aldiz, itzultze bat kondatzen dute, Euskal Herriratze bat; hemendik Hego Ameriketarat edo Kubarat joan ziren Eskualdun batzuen ondokoek bizitzen duten itzulera. Erro bila heldu dira hona eta nortasun bilatze horrek kondalariari gaurko Euskal herriaren problematikari itzuli baten emaiteko parada emana zaio, bide batez.

Ohi den bezala, hemengo jendeek hartze desberdinak egin dizkiete bi liburu horieri. Batzuek ona, idazlanetan emana den irudia ezagutuz et onetsiz, besteek aldiz irudi hori ez onartuz. Irudi berriak kontra-irudien iturburu, hori ez da gauza berria, Loti-ren *Ramuntcho*-rekin gertatu zena funtsean. Bainan, nabariena dena eztabaida hortan eta Eskualdunei buruzko kondaketa berri horietan, azken bi mendeetan zehar hemendik joan diren ondokoentzat itzultzearen tenorea etorria dela.

BURURAPENA

Panorama honen bururatzeko eta euskaraz egiten den sorkuntzari bidea zabaltzeko, bilduma ttipi bat egin nahi nuke bi pundutan:

- Lehenik, ohargarri da sorkuntza mailan, bi hizkuntzak –euskaraz eta erdaraz– elkarrengandik hurbildu direla poxi bat, itzulpenaren bitartez baita ere, elebitasunaren bidez, ainitz liburutant.
- Bigarrenik, Euskal Herria, Eskualdunak eta Euskal gaiak landuak direla frantsesez eta liburu horiek eskaera bati erantzuten dutela: publiko zabal bat aurkitzen dute, saltokiak ere bai eta merkatu bat denaz geroz, idazle berriak ere heldu direla gai horietara.

Bi puntu horiei bi ohar edo ondorio gehitu behar ditut. Alde batetik, idazle berri horien idazlanetan ikuspegi berri eta interesgarriak aurkitzen ditugu, guretzat ispilu erakargarriak direnak gure buruaren ezagutzeko. Bainan, batzuetan, arta eska-

sez eta merkatuaren legeak hara eremaiten baigaitu, gaia sobera landu eta berritu gabe, usaiako topikoak eta gauza jakinak eskaintzen dizkigute, irudi edo argazki ederren artean tartekatua. Beraz, hedapen handiagoak ikerketa eta indar handiagoa ere eskatzen du, dudarik gabe.

Bigarren ondorioa, nahiz ahozko literaturari lotua diren sailek beren entzulegoa atxiki duten, ohargari dela euskarazko sorkuntzak ez duela iparraldean garapen bera ezagutu denbora berean. Euskarazko sorkuntzak ez du oraindik zor zaion toki publikoa ardiesten. Berriki, euskal antzertian buruz izan den mahain-inguru batean, *Maiatz* aldizkariak Baionan urtero antolatzen dituen solasaldien kariatarat hain zuzen, entzule aditu batek erraiten zuen aurtengo Baionako antzerki festibalean adibidez antolatzaileek ez zutela euskal talderik ekarrarazi, erranez iparraldeko euskal antzerkia herri antzertia dela batez ere, hots ahulegia dela helburu estetiko-en aldetik. Bizkitartean, Baionan festibaletik aparte urtean zehar emanak izan diren bi kreazio lanetan, gela mukuru betea zen eta arrakasta handia izan da publikoaren aldetik. Elgar-entzute falta dugu hor?

Beraz, ba da hor zer egin eta zer pentsa, hots zubiak eraikitzeak dira oraindik. Iparraldean, instituzioek bide badute egiteko, eta publikoak ere bai; denbora berean, euskal idazleek beren buruak eta lanak ezagutarazteko eta entzunarazteko beharra badute egundainokotan.

BIBLIOGRAFIA

- AILLET, François, *Kaiku haiku*, 1999.
- ARRIETA, Serge, *Su karrak. Braseru phréatique*. 1990.
- APALATEGUI, Ur, *La Naissance de l'écrivain basque*, 2000.
- AIXAGA, Bernardo, *Pays Basque et culture*, 1999.
- BASURCO, Marie-Josée, *L'Exilée*, 199; *Retour d'exil*, 199.

- BERGER, Séverine, *Le Pays basque vu par les peintres*, 2001.
- BORDA Itxaro, *Entre les loups cruels*, 2001.
- CHAUCHÉ, Eric; GOYHENETCHE, Manex, *Ephémères -Côte basque*, 1994.
- CHAUCHÉ, Eric; OYHAMBURU, Philippe, *Euskadi, Terre des Basques*, 1998.
- DELAY, Florence, *Etzemendi*, 1990.
- DENDALETICHE, Claude, *Montagnes et civilisation basques*, 1978.
- DENDALETICHE, Claude, *Pablo Tillac*, 1999.
- DIEUZAIDE, Jean; LAXALT, Txomin, *Pays Basque au tournant d'un siècle*, 2001.
- DUFILHO, Jacques, *Docteur, un cheval vous attend*, 197.
- DUFILHO, Jacques, *Hayra*, 2001.
- DUMAS, Bruno, *Les Chemins de Terre rouge*, 2000.
- HAÏM, Paul, *Guernica*, 2000.
- GABASTOU, André (Sous la direction de), *Nations basques*, 1993.
- LESAY, Jean-Damien, *Laminak*, 2000.
- MANET, Eduardo, *D'amour et d'exil*, 1999.
- MANET, Eduardo, *La sagesse du singe*, 2001.
- MONGIE, Jacques, *Les œillets de Guernica*, 2001.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste, *Précis d'histoire littéraire basque*, 1996.
- ORONOS, Michel, *La Noce basque*, 1994.
- OYHAMBURU, Philippe, *Dialogue avec mon journal*, 2001.
- THURIN, Robert, BORDA Itxaro, Galaad Esker, *Quatre saisons - Lau urtarok*, 2000.